

UDALEKU IREKIAK: UDABENTURA eta UDATXIKI
GURASO BILERA 2013



TXANTXANGORRI
AISIALDI TALDEA

GURASO BILERA 2013

ekainak 27

SARRERA

Udabenturak hamalau urte bete ditu aurten. Orain arteko esperientzia polita, alaia eta positiboa izan dela ikusirik, aurten ere errepikatzea pentsatu dugu. Iaz bezala, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurrekin egongo gara UDATXIKI ETA UDABENTURA proiektuak aurrera eramanez. Begirale taldea 29 pertsonaz osatua dago, taldearen arabera begirale kopurua aldatzen delarik (8-10 umeko begirale bat), eta honetaz gain bi koordinatzaile egongo dira.

HELBURUAK

- Ondo pasatuz hezi
- Euskara eta euskal kultura bultzatu
- Hezkidetzak bultzatu eta ereduak eman
- Autonomia lortu
- Komunikazioa bultzatu
- Kooperazioa talde lanaren bitartez
- Aniztasuna bultzatu eta integrazioa bideratu
- Ingurunea ezagutu, errespetatu eta maitatu
- Elkarrekiko errespetua bultzatu
- Sormena landu

METODOLOGIA ETA ANTOLAKUNTZA (HAURRAK)

- UDATXIKI
- Egutegia: astelehenetik ostiralera **10.00 – 13.00**.
- Astearteetan irteerak antolatuko dira, horregatik agian ordutegia aldatuko da. (Honen berri emateko oharrak bidaliko ditugu)
- Egunero **Zabielen** elkartuko gara. Ondoren ekintzaren arabera leku desberdinetan banatuko garelarik: ludoteka, zabiela, dantzetako lokala, Jauja, gaztelekua ...
- Haur hezkuntzako begirale arduradunak honako hauek izango dira:
 - Xabi Gonzalez
 - Itziar Sanchez
 - Andoni Peña
 - Eider Lekube
 - Olatz Irigoien
 - Iune Sanchez
 - Malen Larrañaga
 - Ricardo Rodriguez
 - Ianire Usandizaga
 - Amaia Arreitunandia
 - Intza Martinez
 - Iratxe Iparragirre
 - Iñaki Agirretxea

- UDABENTURA

- Ordutegia: astelehenetik ostiralera **9.30-13.30**
- Bere kabuz etxera joan nahi duenak sinaturiko baimena ekartzea derrigorrezkoa da.
- Asteartero irteerak antolatuko dira, horregatik agian ordutegia aldatuko da. (Honen berri emateko oharrak bidaliko ditugu)
- Egunero **“Alboka” okindegi parean** elkartuko gara eta ekintza gehienak ikastolan eta institutuan egingo ditugu.
- Udabenturako begiraleak hauek izango dira:
 - Ainhoa Santamaria
 - Iñaki Iparragirre
 - Leire Juaristi
 - Leire Sagarmendi
 - Amaia Sustaeta
 - Unai Azkarate
 - Nerea Irigoien
 - Yasmina Barjola
 - Julen Ruiz
 - Ioana Eremieva
 - Estitxu Manzidor
 - Udane Mugerza
 - Jaione Matias
 - Aitzol Urkiza
 - Naiara Goenaga
 - Maialen Naberan

KOORDINATZAILEAK

- Lorea Larrañaga - Maitane Andonegi

METODOLOGIA-ANTOLAKUNTZA (BEGIRALEAK)

- Udalekuen aurretik
 - Ostiralero egin ditugu bilerak udalekuetako plangintza ahalik eta osatuena eta aberasgarriena prestatzeko. Honetaz gain, begiraleentzako bi formazio saio aurrera eraman ditugu; formazio bat asteburu osoa izanik.
- Udalekuan zehar
 - 8-10 umeko begirale bat izango da eta, honetaz gain, bi koordinatzaile.
 - Haur Hezkuntza hiru taldez osatua egongo da, lau espazio desberdinetan kokatuta. Lehen hezkuntzan, aldiz, hiru talde bereizten dira: 1.zikloa (1. eta 2. maila), 2. zikloa (3. eta 4. maila) eta 3. zikloa (5.maila eta 6.maila) beste aldetik. Ekintzak begirale taldeak erabakitako programazioaren arabekoak izango dira.
 - Egunero Luardon bilduko gara 13.30tik 14.15tara, inork dudarik balu hemen aurkituko gaituzue. Beste momenturen batean gurekin kontaktuan jarri nahiko bazenute **posta kutxa 54**an utz ditzakezue duda, iradokizun...
 - Edozein ekintza berezi egongo balitz oharra bidaliko litzaizueke.

ARAUAK

- Txartela **beti** ekarri beharko dute.
- Puntualitatea zaindu beharko da, norbait berandu agertuko balitz gure ardurapetik kanpo geldituko litzateke, gure artera bueltatu bitartean.
- Egun batean haur bat faltako balitz, gurasoen ardura izango da hurrengo eguneko ekintzaren berri informatzea. Gure aldetik saiaturako gara ekintza berezien kasuetan Zabiela kanpoko kristalera oharrak jartzen.
- Ezinbestekoa da burutuko ditugun ekintzen araberrako **arropa eta oinetako egokiak** ekartzea.
- Hurrek dituzten gaixotasun eta ondorioz hartu beharreko botiken berri eman behar da.
- Hurrek ezingo dituzte etxetik ez jostailu ez telefono mugikorrik (mobila) ekarri. Ekarriko balute eguna bukatu arte ez litzaioke bueltatuko.
- Gozokiak debekatuta daude.
- Udalekuak iraun bitartean gurasoak ezingo dira hurrekin egon.
- Aldez aurretik abisatzen ez bada, ezingo da hurrek bidean jaso etxera bakarrik joateko baimenik ez badute (hondartzatik Zabiela goazela adibidez).

BEGIRALEEN PERFILA

- Mutrikuarrak.
- Gaiari buruzko sentsibilizazioa, formazioa eta esperientzia .
- Lana kobratu egingo dugu. Hala ere, gainontzeko urteko ekintzak boluntario gisa egiten ditugu.
- Begiraleon lana plangintza, ekintza eta ebaluazioa dira.